



Prensa oharra

Lauko Finaleko 1.000 baloitik gora joango dira Araban saskibaloian aritzen diren gazteen eskuetara

4.000 HAUR GOZATU AHALKO DIRA KIROL MATERIAL BERRIAZ, SASKI BASKONIAK ETA EROSKI-K BULTZATURIKO EKIMENARI ESKER

Gasteiz, 2019ko azaroaren 15a.- [Saski Baskonia](#)k eta [Eroski](#)k 1.000 baloi baino gehiago emango dizkiote Araban saskibaloian jarduten diren gazteen klubei. Turkish Euroleague 2019ko Lauko Finalaren harira jarri zuten martxan elkartasun kanpaina hori Gasteizen orain sei hilabete.

Arratsalde honetan, baloiak emateko ekitaldi sinboliko bat egin dute, eta, ondoren, baloi horiek Arabako 300 saskibaloi-talderi baino gehiagori banatuko dizkiete. Ekitaldi horretan izan dira Josean Yela Eroskiko Harreman Instituzionalerako zuzendaria; Andoni Colmenero [5+11 Fundazioko](#) ordezkaria; Luis Sautu [Arabako Saskibaloi Federazioko](#) presidenteordea; eta Jayson Granger Baskoniako jokalaria.

Maiatzean Saski Baskoniak eta Eroskik indarrak batu zituzten elkartasun kanpaina honetarako. Asmoa zen Arabako saskibaloia oinarrietara kirol ekipamendua helaraztea eta elkartasun eskumuturrekoen salmentarekin herritarrengana iristea Europako saskibaloia ekitaldirik handiena gogoratzeko, zeina Arabako hiriburuan izan baita, Buesa Arena pabiloian.

Baloiak jasoko dituzten taldeen ordezkari gisa joan diren 50 bat gaztek parte hartu baloiak emateko ekitaldi sinbolikoan EROSKI Boulevardeko hipermerkatuan, eta horrekin eman diote amaiera ekitaldiari; hala, Arabako 4.000 saskibaloi-jokalarik gazte gozatu ahalko dira ekimen honi esker.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

EROSKI - PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EIZQUIERDO@CONSEJEROSDELNORTE.COM

EDURNE IZQUIERDO

azubiaga@consejerosdelnorte.com

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa